

A man and a woman are looking at a laptop screen. The man is holding a tablet. The woman is pointing at the laptop screen. The background is a light, bright room.

bai&by

**Behingoan ingelesa zentzuz
ikasteko aholkuak**



Aurkibidea

- 1.** Gaur egun ingelesa ikasteak duen garrantzia.
- 2.** Nondik hasi ikaste-prozesuan arrakastatsu izateko.
- 3.** Ingelesa ikasteko metodo berritzaile eta eraginkorrak.
- 4.** Ikasteko aholkuak. Hizkuntza ez dadila etsai izan!



1. Gaur egun ingelesa ikasteak duen garrantzia.

Argi dago gero eta globalizatuago dagoen mundu honetan berebiziko garrantzia duela, ama hizkuntzaz gain, bigarren, hirugarren edo laugarren hizkuntza bat ikastea. Baina, gaur egun **ingelesa ikasteak duen garrantzia** harago doa.

Argi ikusten ez baduzu, **ingelesak enpresetan duen garrantziaz pentsatu** baino ez duzu egin behar. Ingelesa dagoeneko ez da aparteko jakintza, **ezinbesteko baldintza** da egungo lan-merkatuan sartu ahal izateko.

Eta zer esanik ez bizitzaren beste alderdi batzuetan; hala nola, bidaiatzean edo gai jakin batzuen inguruan irakurtzeko orduan (dibulgazio zientifikoa edo teknologia kasu).

Hala eta guztiz ere, jendartearen zati handi batek oraindik ez daki ingelesez hitz egiten eta, gainera, hizkuntzaren oinarrizko ezagutzarik ere ez dute hainbatek.

Darwinen eboluzionismoaren kontra daudenek ere onartzen dute lan-merkatuan ingelesa behintzat menperatzen duena dela «animaliarik» indartsuena, ondoen prestatua dagoena eta, hortaz, bizirik irauten duena.

Paradoxikoa da hori, izan ere, prestakuntza-eskaintza handituz eta zabalduz doan arren, askok zailtasunak dauzkate oraindik ere hizkuntza-muga gainditzeko.

Muga horren oinarria nagia, denbora faltaren, lotsaren eta abarren gainean eraikitzen da; hau da, guk geuk geure buruari jartzen dizkiogun mugen gainean, alegia: «zaharregia naiz», «honezkero ez nago ikasten hasteko», «ez naiz batere trebea hizkuntzen arloan», «zertarako hasiko naiz ingelesa ikasten orain» ... Argi dago, hortaz, **hizkuntzen etsairik handiena norbera dela, ez beste inor.**

Baina bai&by-n mundu honetan ingelesa jakiteak duen garrantziaz konbentzituko zaitugu, zeure bizitzari itzuli ederra eman diezaiozun eta ingelesa ikasteko erabakia har dezazun behingoan. Hauxe baita hartu behar duzun norabidea...

Zergatik da garrantzitsua ingelesa ikastea? 17 arrazoi dauzkagu:

- 1.** Randstad Professionals erakundearen arabera, gero eta beharrezkoagoa da ingelesa, haren **irismen-maila giza garapen eta ezagutzaren arlo ia guztietan zabaltzen baita.**
- 2.** Aholkularitzak adierazi duenez, halaber, **goi-zuzendaritza** lanpostuen % 75i bigarren hizkuntza bat jakitea eskatzen zaie derrigorrez eta, oro har, ingelesa izaten da hizkuntza hori.
- 3.** Ingelesa ikasteak **mugak irekiko** dizkizu. Nahi duzun lekura bidaiatu ahal izango zara, edo nahi duzun lekuan lan egin.
- 4.** **Webgune gehienak** ingelesez egoten dira.
- 5.** Interneten hizkuntza ingelesa da. Etengabe haziz doa sarean ingelesez komunikatzen diren **nabigatzaileen kopurua.**
- 6.** Aukera emango dizu **ikuspegia zabaltzeko**, beste kultura eta bizimodu batzuk ezagutzeko.
- 7.** Informazioa eskuratzeko **aukera handiagoa**. Gaur egun informazio gehienak, edozein diziplinan, ingelesez dauka jatorrizko bertsioa.

- 8.** Zeure herrian estreinatu aurretik ikusi ahal izango dituzu **telesail eta filmak**.
- 9.** **Umore britainiarraz** eta, oro har, ingeles kulturaz gozatu ahal izango duzu..
- 10.** **Abestien letrak** ulertuko dituzu ... eta horiek abesteko gai izango zara! Ez duzu inoiz gehiago hizkuntza ezezagun batean abestu beharko.
- 11.** Filmak **jatorrizko bertsioan** ikusi ahal izango dituzu.
- 12.** Zeure burua **gainditzen** duzula sentitzea.
- 13.** **Hizkuntza unibertsala** da. Nazioarteko komunikazioaren, merkataritzaren eta finantzen hizkuntza.
- 14.** **Pertsona berriak ezagutzea** ahalbidetuko dizu.
- 15.** **Dibertigarria da.**
- 16.** Lanpostuan hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzten pertsonen % **8 inguru gehiago irabazten dute.**
- 17.** Elebitasunak **garunaren funtzioak hobetzen** ditu: memoria, gune anitzeko gaitasuna, planifikazioa, arreta... eta adinarekin lotutako narriadura-gaixotasunetatik babesten laguntzen du.

Ingelesa jakitea ahalduntzea da. Eska ditzakeen ahalegin guztietatik harago merezi du.



2. Nondik hasi ikaste-prozesuan arrakastatsu izateko.

Puntu honetara arte heldu bazara, izango da ingelesa ikasteko aipatu dizkizugun 18 arrazoiak baliagarriak izan direla. Puntu bat bai&by-rentzat! Urratsik garrantzitsuena emana duzu dagoeneko, baina badira oraindik hartzeke dauden zenbait erabaki, eta lanari ekitea falta da, jakina.

Ingelesa ikasteko erabakia hartutakoan, baliteke zenbait zalantza sortzea. Zeure buruari galdetuko diozu, beharbada, zer **egin behar duzun, nola hasi behar zaren...** Eta, ziur asko, galdera horiei erantzuna bilatzeko asmoz, prestakuntza-eskaintza ezberdinetan kontsulta egiten arituko zara, pixka bat edo erabat zoratzen.

Lasai, ez zaitez larritu, dirudiena baino errazagoa da. Bai&by-n prozesu osoan lagunduko dizugu eta. Garrantzitsua da helmuga egokira heltzea eta, horretarako, erabakirik onenak hartzea; horrela baino ez baitugu lortuko ikaskuntza-prozesua arrakastatsua izatea.

| 6 urrats ingelesa ikasten hasteko:

1. Mentalizatu.

Izan gogoan ahalegindu beharko duzula, denbora eman beharko diozula eta, batzuetan, frustrazioa sentitu eta amore eman nahi izango duzu. Horregatik, esfortzuak merezi duela mentalizatu behar duzu, lortu egingo duzula sinetsi.

2. Motibatu.

Aurreko urratsari segika, oso garrantzitsua izango da, baita, zeure burua motibatzea. Akabo esaldi ezkorrak, aldatu «happy flower» pentsamoldearekin ordeztu. Besteek ahal badute, zeuk ere bai. Automotibazio aholkuez baliatu urrats hori lortzeko eta, bestela, egiguzu kontsulta.

3. Ikertu.

Ingelesa ikasteko akademia edo zentroei buruzko informazioa biltzeko unea heldu da, aurrez aurreko zein online formatuan. Ezagutu horietako bakoitzaren irakaskuntza-metodologia, kontsultatu ikasleen iritziak, etab.

4. Galdetu.

Bilatu sor dakizkizukeen galdera guztien erantzuna: ordutegiak, liburuak, metodoa, prezioak... Ez izan beldurrik eta galdetu bururatzen zaizun guztia. Ez da ezer argitu gabe utzi behar.

5. Konparatu.

Behar duzun informazio guztia eskuratu ondoren, konparatu informazio ezberdinak eta joan aukerak baztertzen.

6. Aukeratu.

Azkenean arrazoiak berak hartuko du erabakia: ondoen egokitzen zaizkizun ordutegiak, gehien konbentzitzen zaituen metodoa, beste pertsona batzuen iritziak, ordainketa-aukerak... Baina bihotzak ere aukeratuko du. Aukeretako bakoitzak zugean sortzen duen feeling-ak ere eragina izango du azken erabakian. Bai, [akademia bat aukeratzea](#) ez da dirudien bezain erraza.

Saia zaitez aipatutako urratsak ordena horretan ematen, erabakirik onena hartu ahal izateko. Gogoratu haren esku dagoela hasiko duzun bidaia zoragarria.



3. Ingelesa ikasteko metodo berritzaile eta eraginkorrak.

Puntu honetara iritsita, argi dago gaur egin bigarren hizkuntza bat ikasten ez duenak nahi ez duelako izaten dela. Ingelesa ikasteko metodo berritzaile eta eraginkor asko dago.

Akademia, metodo edo sistema bakarra aukeratu beharko duzunez, ingelesa ikasteko merkatuan eskaintzen diren zenbait aukera aurkeztuko dizkizugu, gero zuk aukera dezazun.

Metodo eta planteamendu pedagogikoak

Metodo eta planteamendu pedagogiko ugari dago, gehienak XX. mendearen bigarren erdiaz geroztik sortuak: Metodo audio-lingualak, mnemoteknikoak, murgilketa, Pimsleur metodoa, Michael Thomas metodoa, task-based learning, natural approach, silent way, sugestopedia, etab.

Metodo bakoitzaren atzean, planteamendu psikologiko eta linguistiko jakin bat dago, eta horietako bakoitzak bere indarguneak ditu, baina asko ikasketaren alderdi jakin batean zentratzen dira, planteamendu globalik gabe.

Metodorik onena da bitartekoa egokitzen duena (aurrez aurreko formatua,

online...) eta ikaslearen beharrian eta interesetan zentratzen dena, ikaskuntza-prozesuaren gidaritza hark berak har dezan.

Baina ez dago metodo unibertsalik; pertsona guztiak ezberdina garelako eta gutako bakoitzak geure ezaugarrietara ondoen egokitzen den metodoa topatu behar dugulako: memoria garatuagoa (ikusizkoa, entzunezkoa edo kinesikoa), barneratzeko gaitasuna, ikasle kronikoa, etab.

Aurrez aurreko eskolak

Itxuraz sistema hau bereziki berritzailea ez bada ere, azken korrante pedagogikoak (task-based learning, ikaslearen autonomia...) barne hartu dituzten zentroek sistema egokia eskaintzen dute ingelesa ikasteko. Hori bai, oso garrantzitsua da irakasleak profesional onak izatea eta ingelesa irakasten esperientzia izatea, kontuz prestakuntzarik gabeko jatorrizko hiztunekin.

Hala eta guztiz ere, taldeko eskolen arazoa izaten da taldekideen batz besteko maila jarraitu behar izaten dela eta, hortaz, ikasle batzuk aspertzen diren bitartean beste batzuk atzean gera daitezke. Horren ondorioz, oso zaila da klaseak pertsonalizatzea eta ikasleak beharrezko dituen birpasak egitea, ikasketa-prozesuan hutsuneak eta akats kronikoak eginda.

Hori dela eta, , eta denbora zein ordutegi finkoen arazorik ez baduzu, aukera ona izan daiteke etxetik hurbileko akademia bat aukeratzea. Bai&by-n, adibidez, ikastaroak aurrez aurreko zein online klaseekin osatzen ditugu.

Online multimedia sistemak

Online ingelesa ikasteko aukera ugari dago merkatuan. Hain eskaintza zabalean zailena izaten da merezi duen eskaintza bat topatzea. Webgune bakoitzak zoragarri azaltzen du bere produktua, oso oinarri txikiarekin («ikasi ingelesa 4 astean», «new method») eta hizkuntza guztietatik abiatuta ingelesa ikasteko produktu bat dutela esaten dute; baina denok dakigu abiapuntua oso garrantzitsua dela, ingelesa ikasteko zailtasunak oso ezberdinak baitira alemanetik edo txineratik abiatzen bagara.

Interneten eskaintzen diren online metodo gehienak multimedia material digitalizatu hutsak baino ez dira (audioak, bideoak, irakurraldiak, hiztegia...),

eta ariketa soilak uzten dituzte ikasleen eskura nork bere ikasketa estrategia diseina dezan. Asko jota, ikasle batzuk gidatu egiten dituzte eta ariketa jakin batean aprobetxamenduaren % 80ra heltzen direnean gainditutzat jotzen dute. Arazoa %20 horretan datza, ez baita egoki asimilatzen.

Probatzea da egokiena, benetan zeure beharretara egokitzen ote den jakiteko. Badira zenbait webgune kontratatu aurretik probatzeko aukera ematen dutenak, inolako konpromisorik gabe; beren produktuan konfiantza dutela esan nahi du eta praktika egokien isla da.

Sistema adimendunak

Medikuntzan, domotikan, garraioan, finantzetan... Adimen Artifiziala erabiltzea punta-puntako kontua den arren duela zenbait urtetatik hona, irakaskuntza arloan ez da hala gertatzen, eta oso ikasketa-sistema gutxitan ezartzen da horrelako teknologiak.

Horietako bat da bai&by; **DDK System** teknologia darabilgu, **hizkuntzak ikasteko existitzen den sistema adimendun bakarra.**

Metodo horrek neurozientzia eta psikolinguistika arloko azken aurrerapenak barne hartzen ditu eta hizketa-prozesua ezin hobeto simulatzen du. Virtual Teacher delakoak ikasketa-estrategia diseinatzen du ikasle bakoitzari egokituta, eta hark erabakitzen du noiz birpasako edukiak, erabat barneratu direla bermatzeko. Horretarako, diagnostiko zehatza egiten du, ikasle bakoitzaren ezaugarriak antzemanen (epe labur, ertain eta luzerako memoria, barneratze-gaitasuna, zailtasun espezifikoak) eta ikasketa-estrategia erabat pertsonalizatua diseinatzen du.

Neurozientziaren aurkikuntzek frogatu egin dute lengoaia eta epe luzerako memoria hertsiki lotuta daudela. DDK System memoria entrenatzaile sofistikatua da eta neurohizkuntzalaritza arloko azken aurkikuntzak baliatzen ditu aprobetxamendua hobetu eta hizkuntza-edukien automatizazioa zein epe luzerako ikasketa bermatzeko.

Bai&by-k ingeles maila neurtzeko testa egiten du doan eta metodoa probatzeko aukera ematen du berau eskuratu baino lehen; probatu eta

egiaztatu hori behar duzun ala ez.

Hizkuntzak ikasteko aplikazioak eta sare sozialak

Azkenik, beste zenbait teknologia berri ere badago: dagoeneko ezagun baino ezagunak ditugun tresna digitalak eta plataformak.

Sare sozialak hizkuntzak ikasteko. Ikasketa bideratzeko baliabideez elikatutako bitartekoak dira eta zeu bezalako ikasleek parte hartzen dute, ikasteko eta dakitena partekatzeko gogotsu daudenek. **Aplikazio berriak** garatzen dira hizkuntzen ikasketa modu atsegin eta dibertigarrian osatzeko, zauden lekuan zaudela ere. App-ak osagarri egokiak dira aurretik adierazitako metodoetatik edozeinetan.

Gaur egun, bigarren hizkuntza bat ez ikasteko arrazoi bakarra nahi ez izatea da ;)



4. Ikasteko aholkuak. Hizkuntza ez dadila etsai izan!

Askok zera galdetuko diozue zeuen buruari: benetan da posible ingelesa etxetik ikastea? Hala da, bai, baina esfortzua behar da eta eguneroko lanetan konstante izan beharra dago.

Ingelesa ikasteko zenbait aholku emango dizkizuegu jarraian. **Ingeles-maila hobetzen eta perfektzionatzen lagunduko dizueten zenbait truku eta ohitura.**

Hala ere, komeni da aipatuko dizkizuegun praktika hauek beste metodologia batez osatzea, bai&by-k eskaintzen dizunaz adibidez.


| 20 aholku ingelesa ikasteko:

- 1. Izan zintzoa.** Egin zeure buruarekiko hausnarketa. Errealista izan behar duzu, lor ditzakezun helburuak finkatu eta zeure burua motibatzen hasi.
- 2. Maila neurtzeko testa.** Lanari ekin baino lehen egin maila-testa, dagokizun maila ondo aukeratu eta zeuretzako une eta toki egokienean egoteko.
- 3. Aukeratu ingeles metodo egokia.** Ez nahastu online kontzeptua kalitaterik ezarekin. Aukeratu zeure beharrezane, izaerari eta helburuei ondoen egokitzen zaiena.
- 4.** Aukera **eduki** eta jarduera ugari dituen metodoa.
- 5.** Aukeratu **laguntzailea**, tutorea edo irakasle birtuala daukan metodo bat.
- 6. Antolatu.** Antolatu ondo zeure denbora eta saiatu metodiko eta konstantea izaten.
- 7. Malgutasuna** bi ahoko arma izan daiteke hasiera-hasieratik zeure denbora ondo antolatzen ez baduzu.
- 8. Ikasketa-ordutegi zehatz bat finkatu,** egunean 30 minutukoa bada ere. Saia zaitez betetzen. Lortu beharra duzu!
- 9. Konstantzia.** Saia zaitez ahal duzun neurrian oso konstante izaten.
- 10. Ikasteko gunea.** Leku bat ikasteko egokitu dezazun gomendatzen dizugu. Giro egokituan ikastea are eraginkorragoa izan daiteke.
- 11. Entzun abestiak eta ikusi telesailak ingelesez.** Aisialdian ere entzumena lantzen jarrai dezakezu truko erraz honen bitartez.
- 12.** Deskargatu eta erabili [**ingelesa ikasteko aplikazioak**](#).

- 13.** Bilatu laguntza-material eta baliabide osagarri gehiago. Ez zaitez nekatu.
- 14. Prestatu apunte pertsonalak** hilean behin, egunero begiratu eta gramatika memorizatzen eta birpasatzen joan ahal izateko.
- 15. Irakurri liburuak ingelesez** eta egin ulertzen ez duzun hiztegiaren zerrenda. Berrikusi zerrenda hori sarri, bildutako terminoak barneratzeko.
- 16. Hitz egin** ingelesa ikasi nahi duen norbaitekin edo praktikatzen laguntzeko prest dagoen norbaitekin. Orain Skype gisako tresnen bitartez oso erraza da.
- 17. Hartu oharrak ingelesez.** Zergatik ez erosketa-zerrenda ingelesez egin? Ausartu zaitez beste hizkuntza batean pentsatzen!
- 18. Erabili YouTubeko kanalak edo blogak** zeure ikasketa-prozesuan lagun diezazuten.
- 19.** Saiatu hilean behin begi bistan dituzun **gauzak izendatzen**. Nola esaten den ez badakizu, bilatu eta sartu aurretik azaldu dizugun hiztegi-zerrendan.
- 20. Ez pentsa inoiz ezin duzula.** Egin beharreko lanaren erdia baino gehiago da automotibazioa.

Ohitura horiek bereganatzen badituzu, zure ingeles-maila hobetu egingo da pixkanaka, baina ez ahaztu ikasten zoazen hori memorizatu eta barneratzen lagunduko dizuten truko sorta dela.

Hizkuntzak ikastea bide luzeko lasterketa da; metodo edo akademia on baten babesa behar duzu, prozesu neketsu horretan gidatu eta oinarri sendoa eraikitzen lagunduko zaituen norbait. Ondo aukeratu; ate ugari irekiko dizkizun bidaia zoragarri baten aurrean zaude eta, mundu oso bat duzu deskubritzeko.



bai&by

Gida hau **bai&by**-k osatu du.

Espero dugu baliagarri eta interesgarria izango
zaizula hizkuntzak ikasteko prozesuari ekiteko.